

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**349/2016 Foru Agindua, uztailaren 18koa, onartzen dituen toki erakundeek sinatzen dituzten kreditu eragiketetan eta haiek abalak edo bestelako berme publikoak ematean finantza zuhurtasunaz bete beharreko baldintzak**

Abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauak, Arabako toki erakundeen aurrekontu egonkortasun eta finantza iraunkortasunarenak, bere 5. artikuluko 1. idatz zatian honela dio: "Finantza jasangarritasunaren printzipioa betetzeko, finantza eragiketak finantza zuhurtasunaren printzipioaren pean egongo dira."

Beste alde batetik, uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, bere 51.ter artikuluko 3. idatz zatian hauxe xedatzen du: "Toki erakundeek sinatzen dituzten kreditu eragiketa guztietarako eta abalak edo bestelako berme publikoak emateko finantza zuhurtasunaren printzipioari jarraitu beharko zaio. Finantza zuhurtasunaz ulertzen da finantza eragiketek arriskua eta kostua murrizteko bete behar dituzten baldintzak.

Eragiketek bete behar dituzten baldintzak finantza babesean eskumena duen sailaren titularrak emandako foru aginduaren bidez ezarriko dira."

Foru agindu honetan, zehaztu egiten da finantza zuhurtasunaren printzipioa, Arabako toki erakundeek epe luzerako sinatzen dituzten zorpetze eragiketei eta abal edo bestelako berme publikoei aplikatzekoa.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

I. kapitulua. Xedapen erkideak

#### **Lehenengo artikulua. Norainokoa eta finantza zuhurtasunaren printzipioa**

1. Arabako toki erakundeek beren zorpetze eragiketetan, abaletan edo bestelako berme publikoetan finantza zuhurtasunaren printzipioa bete beharko dute ondoko artikulua hauetan ezartzen denaren arabera.

2. Kapitulu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, toki erakundetzat hauxe hartzen da: toki entitatearen administrazioa nahiz haren menpeko gainerako entitate, organismo eta erakundeak, administrazio publikoen sektoreko toki erakundeen azpisektorean daudenak, Europar Batasuneko estatu eta eskualde kontuen europar sistemako definizio eta mugaketaren arabera.

II. kapitulua. Zorpetze eragiketak

#### **Bigarren artikulua. Epe luzerako zorpetze eragiketen finantza baldintzak**

1. Balioen bidez gauzatzen ez diren epe luzerako zorpetze eragiketen gutzirako kostuak, komisioak eta bestelako gastuak barne direla, ezin izango du gairak eragiketaren batez besteko eperako Estatuaren finantzatze kostua, ondoko diferentzial honetaz handitua:

a) oinarrizko 50 puntu, udalen, kuadrillen eta beren menpeko entitate eta organismoen eragiketarako, baldin eta:

i. kaurreko ekitaldian eta uneko ekitaldian aurrekontu egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak betetzen badituzte,

ii. hogeita hamar egun baino gehiagoz ez badute gainditzen berankortasunari buruzko araudian hornitzaileei ordaintzeko aurreikusitako gehieneko epea eragiketa itundu aurreko 2 hilabeteetan, zuzenbidezko 75.000 biztanle edo gehiago dituzten entitateak badira, edo eragiketaren aurreko azken hiruhilekoan, gainerakoentzat.

b) Gainerako toki erakundeek itundutako eragiketak: oinarrizko 75 puntu.

2. Balioen bidez gauzatzen ez diren eta batez besteko aldia 10 urte baino gehiago duten zorpetze eragiketen kasuan, aurreko a) eta b) puntuetan ezarritako gehieneko diferentzialak urte gehigarri bakoitzeko oinarrizko puntu batez handitu ahal izango dira, oinarrizko 15 puntu gehigarritaraino gehienez ere.

3. Aurreko 1. eta 2. puntuetan azaldu diren gehieneko tasei, bakar-bakarrik ondoko komisio hauek gehitu ahal izango zaizkie:

a) Prestasunik ezeko komisioa kreditu polizetan, gehienez ere ehuneko 0,10ekoa urtean.

b) Agentziaren komisioa eragiketa sindikatueterako, gehienez ere 50.000 eurokoa urtean.

4. Berandutze interesek ezin izango dute gainditu eragiketaren interes tasa gehi urteko ehuneko 2ko errekargua.

5. Aurreko 1. idatz zatian adierazi den epe ertaineko finantzatze kostutzat ondoko hau hartuko da: Altxorraren Zuzendaritza Nagusiak argitaratuta dagoena lizitazio prozesua hasteko garaian, lehiaketa publikoen kasuan, edo finantza entitateek eskaintza irmoak aurkezteko garaian, alde biko negoziazio baten bitartez finantzatzekotan.

6. Aurreko 1. idatz zatitik 5.era bitartean xedatutakoa betetzen ez duten eragiketarako, toki erakundeen finantza babesaren gaian eskumena duen sailari memoria bat aurkeztu ahal izango zaio, zeinean eragiketaren komenigarritasun finantzarioa zehaztuko den, frogatuz hark ez duela arriskutan ipintzen erakundearen finantza kaudimena. Foru Aldundiaren sailak haztatuko du, kasu bakoitzerako, salbuespenez eragiketak finantza zuhurtasunaren irizpideak betetzen dituenetz, eta txostena emango du horretarako.

7. Behar diren gainerako baimenen kalterik gabe, balioen bidez gauzatzen diren eragiketen kasuan, onartutako gehieneko diferentziala toki erakundeen finantza babesaren gaian eskumena duen sailaren txosten baten bidez ezarriko da eragiketa bakoitzean, kontuan hartuz merkatuaren egoera eta eragiketaren berezitasunak.

#### **Hirugarren artikulua. Finantza eratorrien eragiketak**

1. Interes tasen eta kanbio tasen trukeak, aukerak eta gerokoak kontratatu ahal izango dira merkatuko baldintza estandarren arabera, toki erakundeak kontraturiko azpiko zorpetze eragiketen interes edo kanbio tasen arriskua erabat edo partez estaltzeko helburuarekin.

2. Zorpetze eragiketa bat euroa ez den dibisa batean egitekotan, kanbio arriskua truke finantzarioko kontratu batez estali beharko da, berezko estaldura izan ezean. Truke finantzario horren kostua kontuan hartuko da eragiketaren guztirako kostua kalkulatzeko, eta azken honek ezin izango ditu gainditu 2. artikuluan xedatutakoaren arabera ezarritako mugak.

3. Finantza tresna konplexuagoak, arrisku handia bereganatzea dakartenak, hala nola palanka-efektudun arriskua duten aukerak, interes tasen kurben malda-aldaketa erreferentzia duten eratorriak, hainbat dibisaren interes tasak lotzen dituztenak, burtsako indizeen bilakaera erreferentzia dutenak, dibisen arteko aldakuntzarekin lotutakoak, edo horien konbinazioak, erabili ahal izateko, toki erakundeen finantza babesaren gaian eskumena duen sailari memoria bat aurkeztu beharko zaio, eratorriaren funtzionamendua, lortu nahi den helburua eta eragiketaren komenigarritasun finantzarioa jasotzen dituenak, frogatuz hark ez duela arriskutan ipintzen erakundearen finantza kaudimena. Foru Aldundiaren sailak haztatuko du, kasu bakoitzerako, salbuespenez eragiketak finantza zuhurtasunaren irizpideak betetzen dituenetz, eta txostena emango du horretarako.

4. Inola ere ezin kontratatu daitezke:

a. Aurreko 3. puntuan zehaztutako finantza eratorriak, gehieneko kosturik gabeak, salbu eta interes tasen finantza trukeak edo zigor diferentzialik gabe tasa aldakor bat bereganatzeko arriskua duten interes tasen aukerak direnean.

b. Prezioen edozein indizeren arriskua bereganatzea dakarten finantza eratorriak, salbu eta eratorriaren helburua arrisku hori deuseztatzea denean.

c. Finantza kargaren geroratzea edo finantzaketaren gehikuntza berekin dakarten finantza eratorriak. Finantza kargaren geroratzea ondoko honi deritzo: eragiketaren denboraren parte batean merkatuko kostuaren azpiko kostu bat finkatzea, baina gainerako denboraz interes tasa handiagoak ezarriz.

Dagokion administrazioak ordaindu beharreko etendura kosturik sortzen baldin bada finantza eratorri bat berregituratzearen ondorioz edo interes tasa aldakorrek finantzaketatik eta interes tasa aldakor-finkoaren truke implizituz abiatuz eratutako tasa finkoko mailegu baten ondorioz, kostu hori jasanarazi ahal izango da berregituratutako eratorriaren tasa finko berrian edo tasa finkoko maileguaren tasa finko berrian, dagokionaren arabera. Hori finantza kargaren geroratzea edo finantzaketaren gehikuntza ez dela iritziko da. Tasa berriak etendura kostuari dagokion partean bakarrik gaudituz ahal izango ditu 2. artikuluan ezarritakoaren arabera mugak.

d. Merkatuko arrazoizko prezioetatik kanpo kontratatutako finantza eratorriak. Zirkunstantzia hau ebaluatzeko, toki erakundeak bere balioespen tresnak eduki beharko ditu, edo kanpoko finantza aholkularitza independentea.

e. Kreditu kalifikazioa beheratzearen ondorioz garaiz aurretik suntsiarazteko klausulak dauzkaten finantza eratorriak.

5. Finantza eratorriak formalizatzeko, esparru-kontratu estandar bat sinatu beharko da, eragiketa horietako eskubideak eta eginbeharrak jasotzen dituen. Halaber, merkatuan estandarra den kolateralizazio kontratu bat ere sinatu ahal izango du.

#### **Laugarren artikulua. Debekuak**

Debekatuta egongo dira balioen bidez gauzatzen ez diren zorpetze eragiketa hauek:

a. Kontratuetan eratorri implizituak jasotzen dituztenak, finantza hartzekodunak eskaturik garaiz aurretik amortizatzeko aukerak barne.

b. Beren finantza egituran finantza kargaren geroratzea berekin dakartenak. Finantza kargaren geroratzea ondoko honi deritzo: eragiketaren denboraren parte batean merkatuko kostuaren azpiko kostu bat finkatzea, baina gainerako denboraz interes tasa handiagoak ezarriz.

c. Toki erakundearen administrazio orokorra bere organismoen eta erakunde publikoen finantza kontratuetan subrogatetik eratorritakoak, toki erakundeak berak alde aurretik bermatutako zorrak bereganatzea badakarte, eta subrogazio horrek aurreko eragiketaren kostuaren gehikuntzarik sortzen badu.

d. Toki erakundearen administrazio orokorra edo bere erakundeetako bat finantza izaerakoak ez diren edo dagokien toki erakundearen abal espliziturik ez daukaten beste zor batzuetan subrogatetik eratorritakoak, baldin eta haien kostua jatorriko eragiketa itundu zen egunean toki erakundeak zeukan batez besteko epe baliokiderako zorpetzearen kostua baino handiagoa bada.

Baita ere, debekatuta egongo da bereganatze edo subrogazio komisioak ezartzea eragiketa hauetan.

e. Toki erakundearen finantza izaerarik gabeko zorrak finantza izaerako zor bihurtzetik eratorritakoak, baldin eta azken huen kostua jatorriko eragiketa itundu zen egunean toki erakundeak zeukan batez besteko epe baliokiderako zorpetzearen kostua baino handiagoa bada.

f. Toki erakundeak berak edo bere erakunde publikoek aurretik sinatutako kontratu baten aldaketatik eratorritakoak, baldin eta eragiketaren kostua finantza aldetik aurreko eragiketaren kostua gainditzen badu.

g. Zordunak eskaturik garaiz aurretik amortizatzeko aukerarik jasotzen ez dutenak. Interes tasa aldakorreko eragiketek ezin dezakete etendura kosturik eduki interesak ordaintzeko egunetan garaiz aurretik amortizatzeagatik. Garaiz aurreko amortizazioa interesak ordaintzeko datak ez diren egunetan eginez gero, onartzen da etendura kostu bat sartzea, baldin eta kostu hori merkatuko ohiko jardunari jarraituz kalkulatzen bada.

Interes finkoko finantzatzeko eragiketek alde jakin baten edo aldeetako edozeinen aldeko etendura kostuak eduki ditzakete, garaiz aurreko amortizazioa interesak ordaintzeko egunetan egin nahiz ez. Nolanahi ere den, etendura kostu horiek bakar-bakarrik islatu ahal izango dute eragiketaren ezerezteak dakarren kalte ekonomikoa mailegua formalizatu edo despoltsatzen denetik amortizatzen den unera arte interes tasen swap-en baldintzak aldatzearen ondorioz (edo, gauza bera dena, interes tasa aldakor-finkoaren truke finantzario implizitua ezereztearen ondorioz). Ezin izango da jaso eragiketaren arrisku prima, mailegua tasa aldakorrekoa izatekotan horri legokiokeen arrisku primaren baliokidea, garaiz aurreko amortizazioaren datatik hasiera batean kontratuan jasotako amortizazio datara arte geratzen den batez besteko epeaz.

h. Aplikatzekoa den erreferentziari loturiko zoru-klausulak dauzkaten interes tasa aldakorreko eragiketak, toki erakundea konpentsatu ezean zoru-aukera hori merkatuko prezioetan saltzeagatik eragiketari aplikatzekoa zaion diferentzian. Debeku honen barruan ez dira sartzen aplikatzeko erreferentzia negatiboa izatekotan zero balioa hartuko dela ezartzen duten klausulak.

j. Interes tasa aldakorreko eragiketak, erreferentzia gisa erabilitako Euribor tasa ez badator bat interesen likidazio aldiarekin, salbu eta kontratuan jasotzen bada erabilitako erreferentziaren eta interesen likidazio aldira egokituaren arteko marjinaren merkatu doikuntza.

#### **Bosgarren artikulua. Informazioa ematea**

Toki erakundeen finantza babesaren gaian eskumena duen sailak haiei eskatu ahal izango die finantza entitateak baimendu ditzatela hauek sail horri informazioa emateko entitate bakoitzak delako toki erakundearekin daukan arriskuari buruz, baita aipatutako eragiketaren ezaugarri nagusiei buruz ere.

### III. kapituluak. Abalak edo bestelako berme publikoak

#### **Seigarren artikulua. Norainokoa eta finantza zuhertasunaren printzipioa abalen eta bestelako berme publikoen eremuan**

1. Arabako toki erakundeek honako pertsona edo entitate hauek bakarrik eman ahal izango dizkiete abalak edo bestelako berme publikoak: Europar Batasuneko estatu eta eskualde kontuen europar sistemako definizio eta mugaketaren arabera, administrazio publikoen sektorean ez daudenei, kapitulu honetan ezarritako terminoetan.

2. Kapitulu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, toki erakundetzat haxe hartzen da: toki entitatearen administrazioa nahiz haren menpeko gainerako entitate, organismo eta erakundeak, administrazio publikoen sektoreko toki erakundearen azpisektorean daudenak, Europar Batasuneko estatu eta eskualde kontuen europar sistemako definizio eta mugaketaren arabera.

3. Kapitulu honetan ezarritakoa aplikagarria izango zaie fidantza, abal, berrabal edo beste edozein motatako berme eragiketei (toki erakundeek emandako konpromiso gutunak barne).

4. Kapitulu honetan ezarritako baldintzetarako bat betetzen ez duten eragiketarako, toki erakundearen finantza babesaren gaian eskumena duen sailari memoria bat aurkeztu ahal izango zaio, zeinean bermearen onuraduna, bermatutako kreditu eragiketaren ezaugarriak eta eragiketaren komenigarritasun finantzarioa zehaztu beharko diren, frogatuz hark ez duela arriskutan ipintzen erakundearen finantza kaudimena. Foru Aldundiaren sailak haztatuko du, kasu

bakoitzeko, salbuespenez eragiketak finantza zuhurtasunaren irizpideak betetzen dituenetz, eta txostena emango du horretarako.

**Zazpigarren artikulua. Abalen edo bestelako bermeen muga orokorraren zenbatekoa eta zenbaketa**

1. Toki entitate bakoitzak baimendutako abalen edo bestelako bermeen guztirako zenbatekoa ezin daiteke handiagoa izan aurreko azken ekitaldian edo (horren faltan, zenbaketa urteko lehen seihilekoan egin behar bada eta ez bada likidatu hari dagokion aurrekontua) haren aurrekoan likidatu edo sortu diren haren diru sarrera korronteen ehuneko 30 baino, aurreko 6. artikuluko 2. idatz zatian aipatu diren entitateen kontabilitate egoera bateratuetatik ondorioztatzen diren kopuruen arabera.

2. Muga hau zenbatzeko, kontuan hartuko da urte bakoitzeko abenduaren 31n dauden abalen eta gainerako bermeen zenbateko nominala gehi hurrengo ekitaldirako aurreikusitako abal baimenak.

**Zortzigarren artikulua. Abalen edo bestelako bermeen banakako mugaren zenbatekoa**

1. Aurreko 7. artikuluan aurreikusitakoa gorabehera, toki erakundeek ezin dezakete abal edo bestelako berme eragiketarik itundu horren hedadura, edozein kontzepturengatik, gehiago baldin bada 7. artikuluko 1. idatz zatiaren arabera definitutako diru sarrera korronteen ehuneko 15 baino.

2. Esandako muga eragiketaz eragiketa zenbatuko da. Hala ere, pertsona fisiko edo juridiko berari edo Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako irizpideen arabera sozietate talde bera osatzen duten erakundeetako edozeini toki erakundeak urte naturalean ematen dizkion bermeak eragiketa bakartzat hartuko dira muga hau zenbatzeari begira.

3. Halaber, kontuan hartu beharko dira uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, ezartzen dituen mugak.

Azken xedapena Indarrean jartzea

Foru Agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko uztailaren 18a

*Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua*  
**MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*  
**IÑAKI GUILLERNA SAENZ**